

GEZALA AKADEMIA

Aurtengo solasaldia, Errenterian hain ezaguna den Miren Gezala Goikoetxearekin, egin nahi izan dut. Berak izan duen kezka larriena, "bere bizitzan garrantzizko gauza interesgarriak egin ez duela eta neri kontatu didan guztia oso zozoa zela" izan arren, nere artikulotxoaren protagonista bera izan behar zuela neretzat argi zegoenez, aurrera jo genuen. Amaren aldeko aitona-amonak Azkaratekoak zirenez, susuaiaren erdiak Nafarroan ditu Mirenek, Akelarre pelikula filmatu zen Araiz aranean.

Tataraitonaren anai bat seminariotik ihes Kubara joan zen dirua egitera, beraz hartue- man haundia izan dute bere senitartekoek, Azkarateko askok bezala, Kubarekin. Mirenen aitona bera, gaztetan harrobia utzi eta Pasaian urontziratu zen Kubaruntz. Itsasoan zenbiltzala, ekaitz izugarri bategatik, sototik atera gabe egun mordoa egon behar izan zuten, baina lurra ikustean hartu zuten pozak gutxi iraun zuten, ze ekaitza medio ikusten ari zirena, ez zen Kuba edo inguruko lurralderen bat, Pasaia baizik. Baina ez zuen etsi eta, diru piska batekin ezkontzera bueltatu bitarte, Kuban bizi izan zen.

Euskal Herrira etorri zenean 1600ean, "Gaspar de Pontika" militarra hil zeneko Errenteriako baserria erosi zuen eta han jaio ziren bere seme-alabak, Mirenen ama, senideetatik gazteena izan zelarik. Bere aita izango zenarekin, Lezotar okin bat, ezkondu eta gero ere amonarekin bizitzen jarraitu zuten, etxe-ko ardura guztia, 100 urte egitera zihoala hil zen arte, Mirenen amonak eraman bazuen ere.



Miren Gezala gaur egun irauten dion edertasunean.

Jone Idiazabal Garmendia

Amaren ahizpa zaharrena monja joan zen, eta beste ahizpa Kubara senideen arri- moan, eta osaba Anizeto berriz baserrian geratu zen. Osaba oso ezaguna, lagun ona eta maitia zen herrian, kontzejal euskalzale eta abertzalea izan zen. Behin, Agustin Bagües udaletzeko karguren batetik kendu nahi omen zuten eta osaba Anizetok, Agustin atetik irte- tzen bazen, besteren bat lehiotik irtengo zela mehatxatu omen zien. Hura hil zenean, duela 25 bat urte, baserria uztea pentsatu zuten, bera baitzen jabea, eta gaur egun bizi den etxera etorri ziren.

Mirenen arbasoek piska bat jabetu gerez, zuzen zuzenean bere bizitzarekin hasi-ko gera. 1920ko Martxoaren 25ean jaioa zen Miren, bost senideetatik zaharrena,

Elixabete, Javier, Bixente eta Ezekielen aurretik.

Lau urterekin bere amaren pausoak jarraituz, "Hijas de la Cruzeko" eskolan hasi zituen ikasketak, bertan zortzi bat urtez ikasten egonaz. Garai hartako oroipen garrantzitsuenetako bat, Sor Teresse Clemancek irakatsitako piano klaseak omen dira, bost urterekin solfeoa eta zazpirekin pianoa hasi zituen, 5. kurtsoa burutu arte. Mirengan trebeziren bat ikusi eta, monja frantzes harek eginahal guztiak jarri omen zituen etxean piano bat erosteraino. Errenterian hain irakasle ona zen Sor Teresse, inork ez aipatzea, beti harritu izan zaiola dio.

Hamabi urterekin batxillerra egitera Donostiara joan behar izan zuen Jesuitetara. Kubatar batekin ezkondua zegoen ize- baren etxean astean zehar geratu eta, larunbatetan etxera asteburua igarotzera, etortzen zelarik. Amaren lehengusu bat piano irakaslea zen Donostian eta, Mirenen trebezia goraiatu zuen arren, errekreotan jo behar izaten zuen pianoarekin jarraitzeko. Gogo haundia ez izateaz gain, Sor Teresse bezain irakasle saiatua bilatu ez zuenez, denbora alferrik galdu zuela dio, behar adina lana egin ez zuelako.



Ikasle batzuk Guadalupea egin zuten ibilaldian



Miren, betaurrekoekin, Arantxa Bagües eta beste lagun batzuekin Iruñean 1935ean egin zen Aberri Egunean.

Lehenengo guda mundialean, Donostiako izeba Kubara joan zen, semea soldaduskara joan ez zedin (gero Kubatik Benezuela alde egin behar izan zuten, baina hiltzera Errenteriara itzuli zen). Orduan Miren eguneroko joan etorria Donostiara Topoan egiten hasi zen M^a Luisa Bagüesekin batera, eskola berdinerara joateko. Garai hartan, Topoan Loiolara joaten zirenak soldaduak ziren bere uniforme eleganteekin, tartean noski Errenteriako ezagun asko zen. Orduko familiartasuna medio, norbait beranduxamar bazetorren maldatik gora eta, ikusi ezker, zai egoten zen Topoa.

Batxillerreko lau urteak egin ondoren, berriro herrian Komertzioko ikasketak ikasten hasi zen, Loidin etxean Monika Arrillagak eta, On Angel apaizaren arreba Karmenen senarrak, Manolo Aillonak zuten akademian. Jende asko ez, baina oso ezagunak joaten omen ziren: Isabel Albisu, Lolita Azkarraga, Inaxito Bidegain adibidez, eta oso gustora gainera.

Guda zibila hasi zenean Monika bere senarrarekin Frantziara joan zen eta han gelditu ziren bizitzen. Manolo, berriz, gudari joan zen eta gero kartzelan bukatu zuen. Miren gudak Azkaraten harrapatu zuen San Ferminetako jaiak igarotzen, udarako oporrak han pasatzen zituzten eta.

Miren "Peritaje Merkantil" bukatutzera Donostiako Komertzioko eskolara, Arantxa Bagüesekin batera (Oñatibiaren alarguna), joaten hasi zen.

Frentean soldadu zeudenei kalte ez egiteagatik, unibertsitate mailako ikasketak gerarazi egin zituzten. Tarte horretan, irakasle batek eskeinitako ofizina batean lan egin zuen. Klaseak berriz hasi zirenean, Donostian jarraitu zuen Isabel Albisu eta Pakita Rekalde monjarekin, "Profesor Merkantil" egiten.

Guda zela eta, aita eta osaba lehenengo Bilbora eta gero Urrunera joan ziren ia urte pare bat igaroz. Han etxebizitza bat alokatu zuten, besteak beste, Agustin Bagües eta Ambrosio Galarragarekin, famili bat bezela bizi, bakoitza bere eginkizunekin. Aita Urrunen zegoen bitartean, seme alabak txikiak zirenez, Lezoko jaiotetxe ondoan zuen okindegia, beste batzuren eskuetan utzi zuen. Alde bateko eta besteko arteko harremana Behobi ingurura joan eta, bakoitza errekarren alde batean jarriaz, keinu batzuk egitea izaten zen.

Muga pasatzeko, makina bat jendek herriko Xele Goenagari laguntza eskatzen zion. Bera beti prest laguntzeko, negu edo uda, egun osoa pasa behar izaten omen zuen askotan, ez baitzen jakiten, ze garaitan pasako zen, zetorrena bete beharreko paperak edo beste zenbait arazorengatik.

Pontikako Gezalatarren etxean jende asko ibiltzen zen, guztien etxea zen hura, familiako edozeinena eta ezagunena ere bai. Amonak denak onartzen zituen bertan, benetako etxekoandre azkarra eta humore onekoa zelarik. Guda garaian, debekatua zegoenez, txekor bat bera ere ez zuten hil, harrapatuko zituzten beldur, baina gosea ez zuten pasa, zeren babarrun, taloak egiteko artoa eta oilotegiarekin ondo konpondu ziren.

Errenteria txikia zen eta, denak bertakoak zirenez, Miren eta bere familiakoak oso ezagunak ziren. Baina Oarso errebitaraino ekarri didan aitzakiak ezagutarazi du Miren gaztegoen artean: hogei urte zituela "Profesorado Merkantil" bukatu eta jarri zuen akademiak hain zuzen.

Akademian Isabel Albisurekin hasi zen, hauen etxean libre zegoen lehendabiziko solairuan, beste zerbait bilatzen zuten bitartean. Vicente Elizegi kalean ezagutu dugun behea libre aurkitu zutenean, haruntza pasa ziren, baina lehendabiziko pisua libre geratu bezain pronto, gora joan ziren, askoz atseginagoa eta haundiagoa zelako. Kanala egin eta, konpondu bitarte, Pontikako etxean ikusia baitzuen, zer gertatzen zen uholdeekin, ura baserriko ate batetik sartu eta bestetik ateratzen omen zen erreka bat zirudielarik. Eta arazo hura baztertze arren, igo ziren goiko solairura.

Maritxu Olaskoaga, Zamalbideko andereinoa, gauetan laguntzera etortzen zitzairen eta, hango lana bukatu zitzaionean, Mirenen akademian egun osoan hasi zen. Isabel Albisuk, berriz, urte askotan kontabilitatearen ematen aritu ondoren, ahizpa gaisotu eta, utzi egin zuen lana. Guztira, lau edo bost andereino ziren. Kontabilitatea, kalkulo merkantila, takigrafia, mekanografia, erredakzioa, korrespondentzia, eta gutxiagori eta arinago ingelesa, frantsesa, fisika eta kimika irakasten ziren eta gero Donostiako Komertzioko eskolan Peritaje Merkantiletaz esaminatzen ziren. Seguridade soziala, journalak, pertsonaleko gaiak e.a. momenturo aldatzen zirenez, kanpotik norbait ekartzen zuten, gehiena zekitenei hilabeteko ikastaro berezi bat emateko, eta orduan aprobetxatzen zuten Mirenek, Mediterraneoko ondartzaren batera eguzkia hartzera, oporretan joateko.

Akademira Graduado bukatu ondoren, 15 bat urterekin joaten ziren eta gehienak, ofizina batean lana bilatzeko asmorekin, gerturatzen ziren. Orduan gaur egungo arazorik ez zegoenez baita, lortu ere, oso torpe edo alperrak ez baziren behintzat. Ikasle iaioak ere izan ziren, karreraren bat egiteko gaur egungo erreztasunik ez zegoenez egin gabe geratu ziren hainbat.



Miren, ezkerreko 6.a erdiko ilaran, On Felipe Barandiaran antzerkiko taldearen zuzendaria eta beste kide batzuekin.

Haseran ikasle gutxi ziren baina oso ezagunak eta tratua askoz ere familiarragoa zen. Garai haietako ikasle batzuk: Korostola bi anaiak, Mendarteneko anai-arrebak, Pako Etxebeste, Joseba Goñi, Santa Klarako okindegiko anaiak, Inaxito Albisu, Ezekiel Gezala, Jose M^a Lete, Ramonita Albisu, Kontxita Zabala, Faustini Ganborena, Milagros Ezenarro, Iparragirre bi ahizpak, e.a. izan ziren. Klaseak goizez, arratsalde edo gauz izaten ziren. Disziplina handiarekin lan egin arren, klasetik kanpo, batzuekin lagunak izatea iristen ziren, beste batzuk barrabaskerietan nagusiak baziren ere.

Era konkretu bateko neska-mutilen bila etortzen ziren lantokietatik, ezagun asko. Eta ezagunak ez zirenean, bidali behar zuten ikasleen gurasoekin hitz egiten zuten, lantokia zein zen, jakin zezaten eta ardura bakarra gurasoena izan zedin. Ikasle ona eta langilea lan batera bidaltzen zuenean, beti esaten ziren konten ez baleude jakinarazteko, beste toki egokiagoa aurkituko ziotelakoan.

Anekdotak ugari ditu irakasle bizitza luze horretan, halere, batzuk kontatu ezin omen dira, inor minduta senti ez dadin, berataz zerbait kontatzen ari garela konturatzerakoan. Alaz ere, hor doa zertxobait...

Behin batean, aita bat etorri omen zitzaion oso haserre, bere semearekin bizitzen uzten ez ziotela esanaz, eta zeintzuk izango ote ziren ba zirikatzaileak, aipatutako barrabas horietako batzuk! Jatorrak eta leialak baina elementu paregabeak, "ikuitu ezin ziren talde berezi batekoak zirela, esaten omen zioten".

Aurrez-aurre zegoen Mendarteneko baratza, ederki bisitatua izaten omen zen, lehiotik salto egin eta bertako fruituak jateko.

Gauz joaten zen beste ikasle bati, oso despistatua zenez, balantzea behin ere ez omen zitzaion ateratzen, gaur bost ematen bazion bihar hiru. Egiten ari zen lana uztera omen zihoan, beste toki batean eskeini ziotenaren orde. Eta Mirenen preokupazioa! Lantokian, bere aita edo amarekin konprometzuren batengatik, mantentzen zutela pentsatzen baitzuen. Baina azkenean, ikasleak lana utzi zuen eta zein izango sorpresa, bankuetez ezagun bateko kargu garrantzitsu bat izatera iritsi dela gaur egun. Ikusmira finantziero on bat zuela, Miren konturatu ez!

Ama batek semea onartzeko eskatu zion Mireni eta, ze maila zeukan, galdetu ondoren, arazorik ez zuela erantzun zion. Baina besteen adinako preparazioa ez zuela ikustean, laguntza berezia jarri behar izan zioten. Amak lasai hartu zuen, behar zena kobratzeko esanez, baina hartan geratu zen, ez baitzion inoiz galdetu zenbat zor zion.

Lehenengo ikasle eta gero irakasle izan zirenak ere badaude. Batzuk, beraien lan ordutik kanpo gauean laguntzera etortzen ziren. Gehiago kostatzen zitzaienei esku bat botatzen M^a Karmen Gomara, Begoña Lakente, M^a Pilar Martins, Gema Oliveri, Jose M^a Sevillano, Eli Zapirain, e.a. aritzen ziren.

Pazientzi haundia behar duen lana dela, dio. Mirenek, berak kontabiladadea eta kalkuloa gustokoak zituela, dio, baina gehien gustatzen zitzaiona takigrafia zen. Ikasle onari klasea ematea benetan gozada bat omen da. Bere esperientzian oinarrituz, adimena heredatu egiten dela dio. Behin bakarrik deitu behar izan omen zion mutil baten aitari, kaso egiten ez ziola, eta: "ez gera ados jartzen, berak edo nik alde egin beharko genduke, eta noski hemen zeinek alde egin behar duen ez dago dudarik, noizbait aldatuko balitz arazorik gabe etorri dai-teke", esatera behartu arte.

Denboraren poderioz, aldaketa nabarmen batzuk izan dira. Lehen, ihardun izpiritualak aste batetan neskentzat eta beste-an mutilentzat egiten zirenean, denak joaten omen ziren gaueko klaseak utzita eta hurrengo egunean hizketako gaia izaten zen.

Erreterria kanpoko jendearekin haunditzen zihoan moduan, beste tokietatik etorritakoak ikasleak ere gehiago ziren, ez ezagunak. Eta gauza xeble bat gertatzen zen, hemengoak amarekin joaten zirela hitz egitera eta kanpotarrak berriz aitarekin.

Lan honekin hasi zenean, kanpoan nahi zutena eginda ere klase barruan errespetua zegoela dio, azkenerako nahi zutena egitera ohituta bazeuden ere, zuzentasuna zer zen erakutsi behar zitzaielarik.

Heziketa lanak bukatzeko aukera, 68 urte zituelarik, nekatu xamarra zegoen momentu batetan, akademi bat jarri nahi zuelako orientazioa eskatuz, Miren Muñagorri Zubillagak deitu zionean izan zuen (Eusebio Zubillaga eta Santa Klarako perratzai-learen iloba). "Oso une egokian zatoz" erantzun zion, "nahi badezu nerearekin jarrai dezakezu baldintza batzuk onartu ondoren, Maritxu Olaskoagak jubilatuta arte jarraitu dezala, adibidez". Eta horrela gertatu zen, Maritxu lehenengo maila ondo preparatu gabe zeudenekin geroz eta gehiago sartu zen eta M^a Karmen Gomarak, berriz, zuzendaritza berria piska bat martxan jarri bitarte jarraitu zuen, Miren Gezalak jubilazioa lortzen zuen bitartean.

"Hijas de la Cruzeko" ikasle ohien bazkarian gertatutakoa aipatu gabe, ezin utzi. Miren zaharrenetakoa zelako, bi neskek denen izenean lore batzuk oparitu zizkieten. Horietako bat bere ikaslea izana, ikasteko ez zuela balio konbentzitu omen zuten nunbait, baina Mirenek balio zuela eta gainera nahi zuelerako. Ideiaz konbentzitu zuen, eta hori ez du emakume

honek inoiz ahaztuko, noski. Berarekin zihoan beste emakumeak ere berdina gertatu zitzaiola esan zion!. Mirenek jaso zuen satisfazioa izugarria izan zen eta horrela adierazi zion, "zuek esan didazutenarekin, urte askotako lana konpentsatuta dago".

Noski garai haietan bere bizitza beste gauza batzuekin ere betetzen zuen. Adibidez, On Felipe Barandiaranek antzerkiak zuzentzen zituen eta Onbiden antzeztan ziren, oso pertsona ezagunez inguraturik: Arantxa Arruabarrena, Edurne Goñi, Mari Olarra, Pedrotxo Otegi, Antontxu Sainz, Tere Uranga, Teodoro Urkola eta Andoni Idiazabal, nere aita ere. Mirenek Isabel Albisuren batera, borondatez eta gustoz aktore bakoi-tzaren paperak On Felipek zuen liburu bakarretik atera eta makinaz pasatzen zituzten. Noski, beste zerbaitetan ere beharra bazegoen esku bat botatzen zuten.

Parrokiako zentsoa egiteko, pertsona ugari etxetz etxe ibili ondoren, Miren eta M^a Karmen Munoak paper guztiak klasifikatu eta liburuan jarri zituzten. Garai haietan, emakume batek jarri omen zuen ezkondata zegoela baina ez zela bere senararekin bizi, beste batekin baizik. Beste gizon batek berriz jartzen zuen, beste emakume batekin ezkondua zegoela, baina lehen-go emakume horrekin urte mordo batean "sozietatean" bizi zirela. Apaizari galdetu zioten, ze senidetasun jarri behar zitzaizen, ze orduan ez zen horrelakorik ikusten, eta haren erantzun argia "bazkide" izan zen.

Parrokiko koroan ere, ibilia da. On Jose M^a Olaizolaren zuzendaritzapean, kontzertu onak prestatu omen zituen, koroa benetan kalitatezkoa bihurtuz. Bere etxera joaten omen ziren, pianoarekin hirugarren ahotsa ensaiatzera. Pianoko ikasketak azkenean mugatuak geratu omen zitzaizkion, batzutan Elizan organoa jo eta besteetan Hospitalilloan armonioa, besterik ez.

Oso gustoko izan duen beste eginkizun bat, mendian ibiltzea izan da, Euskadiko paraje askotan ibilia da. Arantzazun Aste Santu asko igaro ditu, ondoko mendiak eginaz. Urte batean, Zarautzen nobiziadua egin ondoren, Teologia ikasten ari ziren sei praile kubatar ezagutu zituen. Gero beraiek eskatuta Donostia, Erreterria eta Tolosako batzuek osatutako koadrila bat, hilero asteburu bat Arantzazun igarotzen hasi ziren, bilerrak, meza eta festa batuaz. Eta horren ondorioz konbentzi eta lagun onak lortu zituen.

"Ikusten ze bizitza arrunta izan dudana, ez dago ezer nabarmenik" dio oraindik Mirenek. Eta bi neska horiek esandakoa gogorarazi behar izan diot. Mundu honetan, denak bi pertsonen bere bizitzak balio bat duela ikusaraztea lortuko bagenu ez litzateke gauza makala izango. Ez da txantxetakoa izan, berak hemen aipatuak izan diren Erreterriar ezagun guzti horiei egindako heziketa lana. Azkenik, Mirenekin nolabaiteko lotura izan duten guztiak, bere ikasleak barne, herrian eginkizun bat bete duen bati, Oarsotik errekonozimendu txiki hau egitea, gustokoa izango dutelakoan, besarkada bat Mireni gu guztion partetik.



Miren, ezkerreko 5. a goiko ilaran, On Jose M^a Mugika, koroaren zuzendaria eta beste partaide askorekin